## BERGARAKO UDALA

*Iragarkia*

2014ko urtarrilaren 20an Udalbatzak egindako ez ohizko batzarrean erabaki zuen ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean aurreikusitako hobariaren aplikazioa arautuko duen erregelamenduari hasierako onarpena ematea.

Kontuan izanik jendaurrean egon den epean ez dela erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, erregelamendua behin betirako onartuta geratu da. Beraz, eta apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluak xedatzen duena betez, aipatutako erregelamendua argitaratzen da.

### ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALEAN AURREIKUSITAKO HOBARIAREN APLIKAZIOA ARAUTUKO DUEN ERREGELAMENDUA

AURREKARIAK

Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen 2014rako ordenantza fiskalean honako hau jasotzen da:

D) Zerga honen kuotan %75eko hobaria izango dute hirilur eremuan dauden eta Katastroan garaje edo parkin erabilera duten finkek, ibilgailuak garajeetan sartzea helburu duen Erregelamenduak xedatutakoa betetzen bada eta baldintza hauek ere betez gero:

— Finka horietan sartzen diren ibilgailuek izan behar dute turismoak edo ibilgailu mistoak.

— Ibilgailuaren titularra eta garajearen edo parkinaren titularra pertsona bera izan behar dira.

— Titularrak ez badira pertsona bera, ibilgailuaren titularra erroldatuta egon beharko da garajearen edo parkinaren titularrarekin batera etxebizitza berean.

— Finka horietan sartzen diren ibilgailuen zerga helbidea Bergarakoa izan behar da.

— Ibilgailuaren titularra eta garajearen edo parkinaren titularra, biak, Bergaran erroldatuta egon beharko dira.

— Ibilgailuak garajeetan sartzea helburu duen Erregelamenduak xedatutakoa bete dela konprobatu ondoren, zerga honen kuotaren %75eko hobaria itzuli egingo da. Itzulketa egingo da zerga honen erreziboaren hurrengo ekitaldian.

— Ibilgailuak garajeetan sartzea helburu duen Erregelamenduan arautuko dira hobari honen eta egitasmo honen gainerako gaiak.

— egoera hauek guztiak zergaren sortzapen egunean bete beharko dira.

Beraz, erregelamendu hau egiten da hobari horren aplikazioa arautzeko.

*1. artikulua.*

Ibilgailuak garajeetan edo parkinetan sartzea bultzatzeko helburuarekin, ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean aurreikusitako hobariaren aplikazioa arautzea da erregelamendu honen helburua.

*2. artikulua.*

Hobaria aitortzeko, une bakoitzean ordenantza fiskalean aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte ibilgailuen eta garaje edo parkinen titularrek.

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Anuncio*

El pleno en sesión extraordinaria celebrada el 20 de enero de 2014 aprobó inicialmente el reglamento regulador de la aplicación de la bonificación prevista en la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre bienes inmuebles.

Teniendo en cuenta que en el período de exposición pública no se han presentado reclamaciones ni alegaciones el reglamento ha quedado aprobado definitivamente, por lo que en cumplimiento de lo establecido en el art. 70.2 de la Ley 7/85, de 2 de abril, se procede a la publicación del citado reglamento.

### REGLAMENTO REGULADOR PARA LA APLICACIÓN DE LA BONIFICACIÓN PREVISTA EN LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

ANTECEDENTES

En la ordenanza fiscal para 2014 que rige el impuesto sobre bienes inmuebles se establece lo siguiente:

D) Disfrutarán de una bonificación del 75 % en la cuota de este impuesto las fincas sitas en ámbito urbano y cuyo uso, según el Catastro, sea de garaje o parking, siempre que se cumpla lo dispuesto en el Reglamento destinado al estacionamiento de vehículos en garajes, y cumpla además las siguientes condiciones:

— Los vehículos que estacionen en dichas fincas deberán ser turismos o vehículos mixtos.

— La persona titular del vehículo y la del garaje o parking deberán ser la misma.

— En caso de que los titulares no sean la misma persona, la persona titular del vehículo deberá estar empadronada con la persona titular del garaje o parking, en la misma vivienda.

— Los vehículos que se estacionen en dichas fincas deberán tener su domicilio tributario en Bergara.

— La persona titular del vehículo y la persona titular del garaje o parking, ambas deberán estar empadronadas en Bergara.

— Tras comprobar el cumplimiento de lo dispuesto en el Reglamento destinado al estacionamiento de vehículos en garajes, se devolverá una bonificación del 75 % de la cuota de este impuesto. La devolución se efectuará en el ejercicio siguiente al del recibo del impuesto.

— En el Reglamento destinado al estacionamiento de vehículos en garajes se regularán los temas relacionados con este proyecto y bonificación.

— Todas estas situaciones deberán cumplirse al día del devengo del impuesto.

Así pues, se elabora el presente reglamento para regular la aplicación de la citada bonificación.

*Artículo 1.*

El objeto de este reglamento es regular la aplicación de la bonificación prevista en la ordenanza fiscal que regula el impuesto sobre bienes inmuebles con el propósito de fomentar el estacionamiento de vehículos en garajes o parkings.

*Artículo 2.*

Para que les sea reconocida la bonificación, las personas titulares de los vehículos y de los garajes o parkings deben cumplir las condiciones fijadas en cada momento por la ordenanza fiscal.

*3. artikulua.*

Hobaria aitortuko zaie hiri-eremuan egon (5. artikuluan zehazten den eremuetan soilik) eta katastroan garaje edo parkin erabilera duten finkei, baldin eta ordenantza fiskalean eta baita erregelamendu honetan ere jasotako baldintzak betetzen badituzte.

*4. artikulua.*

Hobaria emateak suposatzen du ibilgailua ezin aparkatu ahal izatea garaje edo parkina dagoen gunean urte natural guztian. Dena den, garajea edo parkina dagoen gune horretan aparkatu ahal izango da zamalanak egiteko beharrezkoa den denboran eta gehienez ere 5 minutuz, edo TAOa dagoen guneetan Araututako Aparkalekuen Udal Zerbitzuaren Ordenantzan aurreikusitako denboran eta bertan jasotako baldintzak beteta, TAOaren ordutegiaren barruan.

Gainera, Araututako Aparkalekuen Udal Zerbitzuaren Ordenantzan aurreikusitako guneko biztanleen bereizgarria galtzea ekarriko du. Hau da, ez dira bateragarriak izango biztanleen bereizgarria eta ondasun higiezinen gaineko zergan aurreikusitako hobaria.

*5. artikulua.*

Hobaria aplikatzeko 6 gune bereizi dira.

Gune bakoitzak ondoren zehazten diren tokiak hartzen ditu bere baitan:

— HORIA: HEGOA: Ibarra, Ozaeta, Zubiaurre, Martokoa, San Antonio, San Migel, Eskusarte, Urteaga.

— GORRIA: ERDIA: Artzamendi, Mintegi, Espoloia, Toki Eder, Arrizuri, Martzial Agirre, Torrekoa, Ibargarai, Roman Oiarzabal, Zabalotegi, Ramon M.ª Lili, Belanbide, Iparragirre, Justo Garate, Ortuibar, Zurradero, Herrilagunak, Irala, T. Aranzadi, Joan XXIII.a, Irizar, Kruz Gallastegi, Masterreka, Zubieta 2-4, Bidekurutzeta, San Pedro, Mizpildi, Basarte, J. Irazabal, Goenkalea, Komenio, Barrenkalea, Artekalea, Arruriaga, Burdiñate, Egino Mallea, Bideberri, Simon Arrieta, Fraiskozuri, Arrese.

— BERDEA: IPARRA: Zubieta, Mugertza, Madura, Sanchez Toca, Moiua, Lizaria, Ernai, Boni Laskurain, Matxiategi, Ibaiondo, Fleming, Alkabieta, Oxirondo, San Martzial bidea, Kataibia, Urdangarin.

— URDINA: BOLUA: Bolua, Aranerreka, Koldo Eleizalde, Iriburu.

— MOREA: OSINTXU: Osintxuko hirigunea.

— LARANJA: ANGIOZAR: Angiozarko hirigunea.

*6. artikulua.*

Prozedura honako hau izango da:

Baldintzak bete eta hobaria lortzeko interesa dutenek, eskaera urtero egin beharko dute. Urte baterako hobari-eskaera aurreko urteko abenduan egin beharko da Udaltzaingoaren aurrean. Epe horretatik kanpo ezin izango da eskaerarik egin.

Horretarako, Udaltzaingoaren bulegoan bertaratu beharko dira (San Martin de Agirre plaza 1) garajea edo parkina dagoen gunean aparkatuko ez duen ibilgailuarekin, eta aurkeztu ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta kuota itzultzeko kontu korrontearen zenbakia.

Udaltzaingoak baieztatuko du ordenantza fiskalean eta erregelamendu honetan jasotako baldintzak betetzen direla –bete-

*Artículo 3.*

Se otorgará bonificación a las fincas ubicadas en ámbito urbano (exclusivamente en las zonas señaladas en el artículo 5) cuyo uso según el catastro sea de garaje o parking, siempre que cumplan las condiciones establecidas tanto en la ordenanza fiscal como en el presente reglamento.

*Artículo 4.*

La concesión de la bonificación implica que el vehículo no podrá ser aparcado en la zona donde esté el garaje o parking durante todo el año natural. No obstante, podrá ser aparcado en la zona donde esté el garaje o parking para realizar labores de carga y descarga por el tiempo preciso para ello sin que exceda de 5 minutos, o bien en las zonas con OTA por el tiempo previsto en la Ordenanza del Servicio Municipal de Aparcamiento Regulado y en las condiciones establecidas en la misma, dentro del horario de OTA.

Además, implicará la pérdida del identificativo de residente de zona previsto en la Ordenanza del Servicio Municipal de Aparcamiento Regulado. Es decir, que serán incompatibles el identificativo de residente y la bonificación prevista en el impuesto sobre bienes inmuebles.

*Artículo 5.*

Para la aplicación de la bonificación se han establecido 6 zonas.

Cada una de ellas abarca los espacios que se indican a continuación:

— AMARILLA: SUR: Ibarra, Ozaeta, Zubiaurre, Martokoa, San Antonio, San Miguel, Eskusarte, Urteaga.

— ROJA: CENTRO: Artzamendi, Mintegi, Espoloia, Toki Eder, Arrizuri, Martzial Agirre, Torrekoa, Ibargarai, Roman Oiarzabal, Zabalotegi, Ramon M.ª Lilí, Belanbide, Iparragirre, Justo Garate, Ortuibar, Zurradero, Herrilagunak, Irala, T. Aranzadi, Joan XXIII, Irizar, Kruz Gallastegi, Masterreka, Zubieta 2-4, Bidekurutzeta, San Pedro, Mizpildi, Basarte, J. Irazabal, Goenkalea, Komenio, Barrenkalea, Artekalea, Arruriaga, Burdiñate, Egino Mallea, Bideberri, Simon Arrieta, Fraiskozuri, Arrese.

— VERDE: NORTE: Zubieta, Mugertza, Madura, Sánchez Toca, Moiua, Lizaria, Ernai, Boni Laskurain, Matxiategi, Ibaiondo, Fleming, Alkabieta, Oxirondo, San Martzial bidea, Kataibia, Urdangarin.

— AZUL: BOLUA: Bolua, Aranerreka, Koldo Eleizalde, Iriburu.

— MORADA: OSINTXU: Casco urbano de Osintxu.

— NARANJA: ANGIOZAR: Casco urbano de Angiozar.

*Artículo 6.*

El procedimiento será el siguiente:

Las personas interesadas en la obtención de la bonificación, siempre que cumplan las condiciones para ello, deberán solicitarla anualmente. La solicitud de bonificación para un año deberá realizarse en el mes de diciembre del año anterior ante la Policía Municipal. Fuera de dicho plazo no se admitirán solicitudes.

Para solicitarlo, se deberán personar en las dependencias de la Policía Municipal (plaza San Martín Aguirre, 1) con el vehículo que no se estacionará en la zona donde esté su garaje o parking, presentando el permiso de circulación del vehículo junto con el número de cuenta corriente para la devolución de la cuota que proceda.

La Policía Municipal, tras comprobar el cumplimiento de las condiciones establecidas en la ordenanza fiscal y en el pre-

tzen baditu–, eta ibilgailuaren aurreko kristalean dagokion pegatina jarriko du. Pegatina horrek identifikatuko du ibilgailu horrek aparkatu ezin duen gunea, eta udalari egoki iritzitako beste edozein datu.

Gainera, aurretik jadanik ibilgailuak pegatina jarrita bazuen, baieztatu egingo du baduela pegatina; eta ez badu, ez zaio urte horretako kuotari dagokion itzulketarik egingo.

Udaltzaingoak onartutako eskaeren guztien zerrenda prestatu eta eguneratuta mantenduko du; eta urtea amaitutakoan Kontuhartzailetzari bidaliko dio, honek urte guztian zehar baldintzak bete dituztenei kuota-itzulketa egiteko.

Eskatzaileak adierazitako kontu korrontera transferentzia eginda egingo da itzulketa hori.

*7. artikulua.*

Urtean zehar interesatuak hobariari uko egin ahal izango dio. Horretarako idatzi bat aurkeztu beharko du Udaltzaingoan eta idatziarekin batera pegatina entregatu beharko du. Horrek suposatuko du hobari guztia galtzea.

*8. artikulua.*

Udaltzainek ikusten badute pegatina jarri zaion ibilgailua aparkatu ezin duen gunean aparkatuta, txostena egingo dute.

Txosten horren berri emango zaio garaje edo parkinaren jabeari eta 15 eguneko epea emango zaio alegazioak egiteko.

Alegaziorik egin ez badu, edota egin eta udalak onartzen ez badu, hobaria galdu egingo du.

*Lehenengo xedapen gehigarria.*

Kontraesanik balego erregelamendu honen eta ordenantza fiskalaren artean, lehentasuna izango du une bakoitzean indarrean dagoen ordenantza fiskalean jasotakoak.

*Bigarren xedapen gehigarria.*

Erregelamendu hau aplikatu eta interpretatzeko eman beharreko aginduak emateko gaitasuna Alkatetzari ematen zaio.

*Aldi baterako xedapena.*

2014rako hobari-eskaerak egin ahal izango dira erregelamendu hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita 2014ko martxoaren 31ra arte.

*Indargabetzeko xedapena.*

Erregelamendu hau indarrean jartzen denetik aurrera, orain onartzen den testuaren aurkakoak diren edo horrekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetuta geratzen dira.

Bergara, 2014ko martxoaren 3a.—Alkatea. (2154)

sente reglamento, colocará la pegatina correspondiente en el cristal delantero del vehículo. Esta pegatina será la que identificará la zona en la que el vehículo no puede estacionar, así como otros datos que el ayuntamiento considere conveniente.

Además, si el vehículo tenía colocada con anterioridad la pegatina, comprobará que la lleva; y si no es así, no se le efectuará el reintegro de la cuota de ese año.

La Policía Municipal elaborará, y mantendrá actualizada, una relación con todas las solicitudes aprobadas, y al finalizar el año la enviará al Departamento de Intervención para que éste efectúe el reintegro de la cuota a quienes hayan cumplido las condiciones a lo largo de todo el año.

El reintegro se realizará mediante transferencia a la cuenta corriente facilitada por la persona solicitante.

*Artículo 7.*

A lo largo del año la persona interesada podrá renunciar a la bonificación. Para ello, deberá presentar un escrito en la Policía Municipal junto con la pegatina correspondiente. Ello supondrá la pérdida del total de la bonificación.

*Artículo 8.*

En caso de que los/las agentes de la Policía Municipal vean un vehículo con pegatina aparcado en la zona donde no puede hacerlo, elaborarán un informe.

Se dará cuenta de dicho informe a la persona propietaria del garaje o parking, concediéndole un plazo de 15 días para la presentación de alegaciones.

El hecho de no presentar alegaciones, o de que las presentadas no sean admitidas por el ayuntamiento, conllevará la pérdida de la bonificación.

*Disposición adicional primera.*

En caso de existir contradicción entre este reglamento y la ordenanza fiscal, prevalecerá lo que establezca la ordenanza fiscal vigente en cada momento.

*Disposición adicional segunda.*

La Alcaldía queda facultada para dictar cuantas instrucciones resulten precisas para la adecuada interpretación y aplicación de este reglamento.

*Disposición transitoria.*

Para el año 2014, las solicitudes de bonificación podrán presentarse, a partir de la entrada en vigencia de este reglamento, hasta el 31 de marzo de 2014.

*Disposición derogatoria.*

A partir de la entrada en vigor de este reglamento, quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan o estén en contradicción con el texto ahora aprobado.

Bergara, a 3 de marzo de 2014.—La Alcaldesa. (2154)